

DATU PERTSONALAK BABESTEKO POLITIKA

1. Datu Pertsonalak Babesteko Politika

Hartu denbora eta irakurri arretaz dokumentu hau. Ez izan zalantzarik ulertzen ez duzuna argitzea eskatzeko.

Atal honetan, BBVAk zure datuak zertarako erabiliko dituen eta, besteak beste, horien erabilerarekin lotutako zer eskubide dituzun azaltzen dizugu.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (BBVA), egoitza soziala: San Nikolas plaza, 4, 48005 Bilbo, Espainia. Helbide elektronikoa: consultasgenerales@bbva.com Xehetasun gehiago Informazio osagarria atalean
Helburuak	<p>BBVAren bezero bazara:</p> <ol style="list-style-type: none"> BBVArekin eskatzen edo kontratatzen dituzun produktuen eta zerbitzuen kontratu-harremana kudeatzea. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea. Kreditu-informaziorako sistemei jakinarazi eta haiek kontsultatzea. Iruzurra prebenitzea. Arrisku-analisiak, Profilak eta Merkataritza-helburuak: <ol style="list-style-type: none"> Oinarrizko profilak sortzea. Merkataritza- eta arrisku-profil aurreratuak sortzea. BBVArenak diren edo BBVAk merkaturatzen dituen produktu eta zerbitzuen eskaintzak, eta BBVA Taldearen edo BBVAren partaidetzapeko sozietateen edo sozietate kolaboratzaileen produktu eta zerbitzuen eskaintzak. Datuen analisia. Zure datuak BBVA Taldeko hurrengo sozietateei, partaidetzapekoak eta lankidetzakoak direnei, jakinaraztea https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/gdpr/datu-pertsonalak/taldearen-sozietateak.pdf, euren produktu eta zerbitzu pertsonalizatuak eskain diezazkizuten. <p>Xehetasun gehiago Informazio osagarria atalean</p> <p>Ordezkarria, bermatzailea, baimendua, onuraduna adostasuna ematen duen ezkontidea edo zordun ez den hipotekatzailea bazara, BBVA tratatuko ditugu zure datu pertsonalak, BBVAren bezero batekin duzun harreman juridikoagatik esku hartzen duzun kontratua kudeatzeko.</p> <p>Xehetasun gehiago Informazio osagarria atalean</p>
Eskubideak	Zure datuak zureak dira eta zeuk kontrolatzen dituzu. Horregatik, zure datuak edozein unetan eskuratu, zuzendu eta ezabatu ahal dituzu, eta beste eskubide batzuk erabiltzea ere eska dezakezu. Informazio gehigarria atalean azaltzen den moduan.
Informazio gehigarria	BBVAren datu pertsonalak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehetua kontsultatu ahal duzu Informazio gehigarria atalean.

[BBVAren bezero bazara](#), BBVAk zure lehentasunak aztertzen ditugu merkaturatzen ditugun produktu eta zerbitzuak eskaintzeko, gure interes legitimoan oinarrituta, lehentasun horien arabera zuretzat interesgarriak izango direlakoan. Gainera, jarraian dauden laukitxoetan baimena ematen badiguzu, analisi zehatzagoa egin dezakegu, baita zure interesekoak izan daitezkeen beste produktu

eta zerbitzuen eskaintzak bidali ere.

BBVAk nire datuak eta lehenetasunak zehatzago kontsultatzea eta tratatzea nahi dut, nire finantzak hobeto kudeatzen lagunduko didaten konponbideak eskain diezazkidan.

info gehiago Informazio gehigarria ataleko Merkataritza- eta arrisku-profil aurreratuak sortzea aukeran.

BBVA nirekin harremanetan jartzea nahi dut BBVA Taldeko sozietateen -partaidetuak nola kolaboratzaileak- produktuak eta zerbitzuak eskain diezazkidan.

+ info gehiago Informazio gehigarria ataleko BBVA Taldeko Sozietateen (partaidetzapekoak zein kolaboratzaileak) produktu eta zerbitzuak eskaintzea aukeran.

Nire datuak soilik BBVA Taldeko enpresei, partaidetzapekoak edo kolaboratzaileak, jakinaraztea nahi dut, eskaintzen dizkizaten produktuak eta zerbitzuak pertsonaliza ditzaten.

info gehiago Informazio gehigarria atalaren Zure datuak BBVA Taldearen sozietateei, partaidetzako sozietateei edo gurekin lankidetzeta-hitzarmenak dituztenei jakinaraztea aukeran, euren produktu eta zerbitzuak eskain diezazkizuten.

Egindako hautapena alda dezakezu, baita zure aukerak konfiguratu ere, edozein unetan aplikaziotik, online bankatik edo zure kudeatzailearen edo bulegoaren bidez.

Gogorarazten dizugu ez duzula tratamendu horiek onartzeko betebeharririk helburu horietarako; beraz, laukiak markatzen ez badituzu, ez diezu baimena ematen tratamenduei, ez diolarik eragingo Bankuarekin haren produktu eta zerbitzuei buruz dituzun kontratuen garapenari edo betetzeari.

Ordezkarria, bermatzailea, baimendua, adostasuna ematen duen ezkontidea edo zorduna ez den hipotekatzailea bazara, dokumentuaren azken orrian sinatu besterik ez duzu egin behar. Izan ere, zure datuen tratamendua beharrezkoa da esku-hartzen duzun kontratu-harremana kudeatzeko.

Sinatzeko prozesuan eskatzen den gakoa sartzen duzunean, adierazten duzu ados zaudela Datu Pertsonalak Babesteko Politika honekin.

Azkenik, gogorarazten dizugu Datu Pertsonalak Babesteko Politika hau eguneratu daitekeela eta aldaketak izan ditzakeela. Hori dela eta, noizean behin berrikustea gomendatzen dizugu, BBVAk burutzen dituen informazio-ekintzei kalterik egin gabe. Dokumentu honen azken bertsiora sar zaitezke edozein unetan, esteka honen bidez:

https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/gdpr/datos-personales/politica-tratamiento-datos-personales_eus.pdf

Informazio gehigarria

Jarraian, xehetasun gehiagoz azaltzen dizugu nola tratatzen ditugun BBVA n zure datu pertsonalak..

Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. ("BBVA"); IFZ: A-48265159; egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005 Bilbo, Espainia. Helbide elektronikoa: consultasgenerales@bbva.com

Nola jar zaitezke harremanetan BBVAren Datuak Babesteko Ordezkariekin?

página web bbva.es, apartado Datos Personales/Contacto DPO o a través del siguiente link: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>.

Zer datu tratatzen ditugu? Nola lortzen ditugu zure datuak?

■ Bezeroa bazara

Jarraian azaltzen dizkizugun datuak tratatzen ditugu BBVA n. Datu horiek zeuk zuzenean emandako informaziotik, zuri buruz bildu edo sortu izan dugunetik eta beste iturri batzuetatik lortutakoetatik atera ditugu. BBVA n datu horiek tratatzen ditugu gurekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuen gainean eta merkaturatzaile den produktu eta zerbitzuen gainean.

■ **Identifikazio eta harremanerako datuak, esaterako:** izena, abizenak, argazkia, NANA, pasaporte edo AIZ, herritartasuna, jaiotze-herrialdea, jaiotze-data, posta helbideak, helbide elektronikoak, telefono finkoa, telefono mugikorra eta zure ahotsari eta irudiari buruzko datuak.

- **Sinadura-datuak:** eskuz idatzita, digitalizatuta eta online bankuko kodeak.
- BBVArekin duzun harremanean, urrutiko kanaletan sartzeko eta eragiketak egiteko erabiltzen dituzun **identifikazio-kodeak edo gakoak**.
- **Ekonomia eta ondare-kaudimenari buruzko datuak, esaterako:** hileko diru-sarrera garbiak, kontuetako batez besteko saldoa, aktiboaren saldoa, helbideratutako ordainagiriak, helbideratutako nomina, diru-sarrerak eta gastuak, ondasunak eta ondarea eta, zure kasuan, finantza-kalifikazioarekin, finantza-egoerarekin eta inbertsioaren helburuekin lotutakoak.

Era berean, horiek eman badituzu, BBVAk lan-bizitzaren edo zure errentaren gaineko zergaren aitortpena bezalako datuak prozesatzen ditu, eta, horretarako baimena eman baduzu, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin edo Zerga Agentziarekin, hurrenez hurren, egiaztatuko dira. Zor egiazko, mugaeguneratu eta eskagarriren bat baduzu BBVArekin, beste datu batzuk ere eska daitezke, horren kobrantza kudeatzeko.

- **Transakzio-datuak**, esaterako: zure kontuko mugimenduak, zure txartelen mugimenduak, saldoak, diru-sarrerak, ordainketak, transferentziak, zorpekoak, ordainagiriak, helbideratzeak. Transakzioaren jatorria, helmuga, kontzeptua eta hirugarrena jasotzen dituzte, baita burutzen den tokia, data eta ordua ere. Gainera, datu horiek BBVArekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuei dagozkienak dira, eta agregatutako erakundeen produktu eta zerbitzuei dagozkienak, Agregazio edo Ordainketak Hasteko zerbitzuak kontratatu izan badituzu.
- **Datu soziodemografikoak**, esaterako: adina, egoera zibila, familiaren egoera, egoitzak, ikasketak eta lanbidea (kontratu-mota, lanbide-mota, enplegatzailea, antzinatasuna enpleguan) edo kolektiboetako kide izatea, baita jasangarritasun-lehentasunak, inbertsioen eta horien arriskuen arloko ezagutzak eta esperientzia, ikasketa-maila eta lanbide-esperientzia finantzen sektorean ere.
- **Kontratutako produktu eta zerbitzuei buruzko datuak**, esaterako: kontratuaren zenbakia, kontratatutako produktu eta zerbitzuen muga eta zerbitzuen tipologia, kontratuaren datuak (kontratuaren ezaugarriak), helbideratze-kontua, BBVArekin hartzen den arriskua, parte-hartzaileak, eta kontratu horietako edozeini lotutako edozein dokumentazio.
- **Agregazio Zerbitzuan eta Ordainketak Abiarazteko Zerbitzuan emandako datuak:** zerbitzu horiek kontraturik izanez gero, agregatutako beste erakundeetan kontratatutako produktu eta zerbitzuen datuak eta aipatutako gainerako kategorietako datuak tratatzen ditugu (esaterako, sinadura-datuak, transakzio-datuak, zerbitzu horien jatorria, helmuga, kontzeptua, lokalizazioa, data eta ordua, etab., barne direlarik, hala badagokio).
- **Jakinarazpenetako datuak:** telefono deietatik edo Bankuarekin ahozko edo idatzizko komunikazio kanalen bidez egiten dituzun hartu-emanetatik eratorritakoak, hala nola posta elektronikoa, berehalako mezularitza, sare sozialak edo uneoro zure esku dauden elkarrizketa interfazeak, eta komunikazio komertzialetako datuak, horien emaitzak barne; halaber, asebetetze inkestean bidez ematen dizkiguzun datuak.

Zuri buruz bildutako edo sortutako datuak:

- BBVAk zure produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko eskura jartzen dizkizun kanalen erabilerari buruzko datuak, hala nola: gailuaren IDa, gailuaren fabrikatzailea eta modeloa, gailuaren sistema eragilea, IP helbidea, nabigatzailea eta haren bertsioa, eta nabigazioa bera eta horrako sarbideak.
- Kontratutako produktu eta zerbitzuetatik eratorritako informazioa, esaterako: kanal digitalen nabigazio eta erabilpenetik eratorritako datuak, kanalen bidez BBVArekin duzun harremanari buruzko datuak, geolokalizazio-datuak, komunikazioetan edo transakzioetan egiten dituzun iruzkinetatik lortutako datuak, zure transakzio-datuetan (ordainagiriak, transferentziak, zordunketak) sartzen dituzun datuak, edo txat-botekin izandako interakzioetatik eratorritakoak.

Beste iturri batzuetatik lortutako datuak:

- Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazio Zentralari (CIRBE) igorritako kaudimen-informazioa.
- Zure eskaera eta eragiketen bideragarritasun ekonomikoa aztertzeke kreditu-informaziorako sistemetatik (Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito S.L. eta Experian Bureau de Crédito, S.A.) eta Equifax

Ibérica, S.L. bezalako kreditu-baloraziorako konpainietatik lortutako informazioa.

- Iruzurra prebenitzeko informazio-sistemetatik eratorritako informazioa, adibidez Confirma-tik eta Iberpay-tik.
- Iruzur-arriskuaren zantzuak identifikatzeko informazio-sistemetatik, esaterako Emailage-tik edo Telesign-etik, datorren informazioa.
- Sarbide publikoko iturriak, hala nola: aldizkari eta buletin ofizialak, erregistro publikoak, administrazio publikoen ebazpenak, katastroa, telefono-gidak, elkargo profesionaletako pertsonen zerrendak eta iruzurra prebenitzeko zerrenda ofizialak (Confirma eta Experian).
- Higiezin, ibilgailuen edo bestelako ondasun higiezin balorazioari buruzko informazioa, esate baterako, Madiva Soluciones SL bezalako iturriek emandakoa, edo EUROTAXetik ibilgailuen tasazioetan lortutakoa, edo zure kaudimena ebaluatzea ahalbidetzen duten beste aktiboetatik eratorritako informazioa.
- Interes orokorreko horniduren (energia, komunikabideak...) zerbitzu-konpainietatik lortutako profilen informazioa.
- Ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileek egindako entzegei buruzko datuak, horiek eskuratzeko BBVAk finantzazioa eman dizunean.
- Jokabide digitalari buruzko datuak, cookieei edo gailuei esleitutako bitartekoen plataforma eta zentraletatik lortuak, webgunean eta mugikorrean sartzean gure cookie-politikari baimena ematen diozunean.
- **Ordezkarria edo baimendua:**
 - Identifikaziorako eta harremanetarako datuak (posta helbideak edota helbide elektronikoak barne).
 - Sinadura datuak (sinadura digitalizatua eta elektronikoa barne).
 - Datu soziodemografikoak, esaterako: adina, egoera zibila, familia-egoera, bizilekuak, ikasketak eta lanbidea (kontratu-mota, laneko antzintasuna) edo kide zaren taldeak.
 - BBVArekin duzun harremanean erabiltzen dituzun urrutiko kanaletan sartzeko eta eragiketarako egiteko erabiltzen dituzun identifikazio-kodeak eta -gakoak.
 - Beste pertsona juridiko batzuen ordezkarri izateari buruzko datuak.
 - Beste iturri batzuetatik lortutako datuak: Iruzurra prebenitzeko informazio-sistemetatik, esaterako Confirmatik, eratorritako informazioa; Iruzur-arriskuaren zantzuak identifikatzeko informazio-sistemetatik, esaterako Emailage-tik edo Telesign-etik, datorren informazioa.
 - Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuetako datuak.
 - Ezagutzei eta esperientziari, ikasketa-mailei eta finantzen sektoreko lanbide-esperientziari buruzko informazioa.

Aurrekoek gain, datu pertsonal gehigarrien bestelako tratamenduak egon daitezke, BBVArekin hala adostu baduzu.

Kontuan izan, gainera, BBVAko bezero partikularra bazina, BBVAk bezero partikular gisa berarekin duzun kontratu-harremanetik eratorritako zure datuak erabili ahal izango lituzkeela, ordezkarri edo baimendu gisa jarduten duzun eragiketetan iruzurra prebenitzeko.

- **Onuraduna bazara:**
 - Identifikaziorako eta harremanetarako datuak (posta helbideak edota helbide elektronikoak barne).
 - Sinadura datuak (sinadura digitalizatua eta elektronikoa barne).

- BBVArekin duzun harremanean erabiltzen dituzun urrutiko kanaletan sartzeko eta eragiketak egiteko erabiltzen dituzun identifikazio-kodeak eta -gakoak.
- Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuetako datuak.
- Ezagutzei eta esperientziari, ikasketa-mailei eta finantzen sektoreko lanbide-esperientziari buruzko informazioa.

Aurrekoetz gain, datu pertsonal gehigarrien bestelako tratamenduak egon daitezke, BBVArekin hala adostu baduzu.

Bermatzailea bazara:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak (posta helbideak edota helbide elektronikoak barne).
- Sinadura datuak (sinadura digitalizatua eta elektronikoa barne).
- Datu ekonomikoak eta ondare-kaudimenari buruzkoak.
- Datu soziodemografikoak, esaterako: adina, egoera zibila, familia-egoera, bizilekuak, ikasketak eta lanbidea (kontratu-mota, laneko antzintasuna) edo kide zaren taldeak.
- Beste iturri batzuetatik lortutako datuak: Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazio Zentralari (CIRBE) igorritako kaudimen-informazioa; Kreditu-informaziorako sistemetatik (Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito S.L. eta Experian Bureau de Crédito S.A.) eta Equifax Ibérica S.L. bezalako kreditu-baloraziorako konpainietatik lortutako informazioa; iruzurra prebenitzeko informazio-sistemetatik, esaterako Confirmatik, eratorritako informazioa.
- Bermatzaile gisa parte hartzen duzun beste produktu batzuei buruzko datuak.
- **Adostasuna ematen duen ezkontidea edo zordun ez den hipotekatzailea bazara:**
 - Identifikaziorako eta harremanetarako datuak (posta helbideak edota helbide elektronikoak barne).
 - Sinadura datuak (sinadura digitalizatua eta elektronikoa barne).
 - Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuetako datuak.

BBVAtik eskatzen dizugu zure datuak behar bezala eguneratuta eduki ditzazula, tratatzen ditugun datuak une oro egiazkoak, osoak, zehatzak eta eguneratuak direla bermatzeko. Aldatu egiten badituzu, guri jakinarazi behar diguzu atzerapenik gabe, zure egungo egoeraren jakinean egon gaitezen.

Zertarako eta zergatik (legitimazio-oinarria) tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

A) BEZEROA BAZARA

1. BBVAri eskatzen edo kontratatzen dituzun produktu eta zerbitzuen kontratu-harremana kudeatzea

Bezero berri gisa alta ematea eskatzeko prozesuan

BBVAk zure datu pertsonalak tratatzen ditu zu identifikatzeko eta bezero berri gisa alta-eskabidearen prozesua kudeatzeko, aipatutako prozesuan adierazten den bezala.

Bideo-dei edo bideo-identifikazio bidez alta emateko prozesuetarako, tratamendu horri lotutako informazioa kontsulta dezakezu hemen: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/legal/tratamiento-de-datos/videollamada-y-videoidentificacion.pdf>

Bezero zarenean edozein produktu eta zerbitzu eskatu eta kontratatzeagatik

BBVAn honetarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak:

- Eskatzen dizkiguzun eta kontratatzen dituzun produktu eta zerbitzuak egoki kudeatzeko. Horrek barne hartzen ditu zure kaudimenaren balorazioa eta zure eta BBVAren arteko kontratu aurreko harremanaren eta kontratu-

harremanaren garapena, mantentzea eta jarraipena.

- Zure kontsultei erantzuteko eta zurekin dugun harremanari eta zure finantza-bilakaeraren jarraipena egiteko (bai bezero izateagatik BBVArekin dituzun produktu eta zerbitzuei lotutakoak, bai BBVA merkaturatzaile den produktu eta zerbitzuei dagozkienak).
- Jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzeko, kontratatutako produktu eta zerbitzuen harira BBVArekin duzun harremana kudeatzeko, bai eta emandako zerbitzuei buruz eman nahi diguzun iritzia ezagutzeko ere.
- Zure finantza-datuak modu erraz eta intuitiboan erakusteko BBVAk une bakoitzean zure esku jartzen dituen kanaletan.
- Bezero zaren aldetik izan ditzakezun arrisku-egoerak, ez-ordaintzeak, gorabeherak edo erreklamazioak kontrolatu, aztertu eta kudeatzeko, azken kasu horretan barne hartuta horiek ikertzeko eta/edo antzemateko edozein tratamendu, horren aurrean beharrezkoak diren ekintzak burutzearen.
- BBVAk zure eskura jartzen dituen kanaletarako sarbidea kudeatzeko, BBVArekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuak eskuratu eta kudeatu ahal izan ditzazun.
- Gainera, BBVAk ondasun edo zerbitzu bat erosteari lotutako finantzaketa bat ematen dizunean, BBVAk ondasun edo zerbitzu horren hornitzaileari jakinaraziko dio dagokion finantzaketa-eragiketa indarrean jarri izana (eragiketa-zenbakia, bezeroa eta zenbatekoa), hornitzaileak egin dezan Bankuak abonatutako eragiketen gaineko kontrola eta jarraipena, bere barne-fakturaziorako. BBVA ondasun edo zerbitzuaren hornitzaileari eskatu beharrean izan daiteke horren entregari buruzko informazioa, BBVAk gauzatu dezan horri loturiko finantzaketa-kontratua.

Zure datu pertsonalak tratatzeko **legitimazio-oinarria** BBVAri eskatutako edo horrekin kontratatutako produktu eta zerbitzuei buruzko **kontratua betearaztea** da.

Gainera, zenbait kasutan, BBVAk datu gehigarriak lortu eta tratatu ahal izango ditu, zuzenean edo zerbitzu hori kontratatzen duen enpresen bidez, zorra berreskuratzeko eta ordaintzeko duen **interes legitimoan** oinarrituta.

Horrez gain, BBVA Seguros, S.A. de Seguros y Reaseguros-en produktuak kontratatu badituzu, BBVAk zure datu pertsonalen eguneratzearekin lotutako informazioa partekatu ahal izango du. Hau da, BBVAren bidez datu pertsonal bat eguneratzen baduzu, hark datu eguneratuak eman ahal izango dizkio BBVA Seguros, S.A. de Seguros y Reaseguros entitateari.

Tratamendu hori legitimatzeko oinarria BBVA Seguros, S.A. de Seguros y Reaseguros entitateak bere bezeroen harremanetarako datuak uneoro zehatz eta eguneratuta edukitzeko duen interes legitimoa da.

Iberpay kontuaren titulartasuna egiaztatzeko zerbitzua Era berean, zure identifikazio-datuak eta kontuaren datuak tratatuko ditugu BBVAko kontu baten titularrak zaren ala ez baieztatzeko, hirugarren batek eskatuta (aurrerantzean, Eskatzailea). Kontu horretan helbideratze edo zordunketa bidez zure aldetik ordainketaren bat egitea dakarren kontratua sinatu behar duzu hirugarren horrekin.

Zure datuen tratamenduari dagokionez, BBVAk zure kontuaren titulartasuna egiaztatzen dezan, non berehalako edo etorkizuneko kobrantza edo ordainketa bat formalizatu nahi den, egiaztapenaren eskatzailearekin eta BBVArekin duzun kontratu-harremana bera da **legitimazio-oinarria**, eta aldean artean sinatutako kontratua behar bezala betetzea du helburu, ordainketaren helbideratze-kontuan izandako akats baten ondoriozko kalteak saihesteko.

2. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea

(i) CIRBERi jakinarazi eta kontsultatu

BBVAk, nahitaez jakinarazi behar dizkiogu Espainiako Bankuko Arriskuen Informazio Zentralari (CIRBE) bezero gisa egiten dituzun banku eragiketen arriskuak, eta horrekin batera, zure datu pertsonalak eta banako enpresaria zaren ere jakinarazi behar diogu. CIRBEk zuri buruz ager daitezkeen datuak kontsultatu ahal izango ditu BBVAk zure finantzaketa-eskaera kudeatzeko, zure kaudimena eta kreditu-arriskua egiaztatzeko eta ebaluatzeko, Bankuarekin finantzaketa-produktuak edo -zerbitzuak izanez gero.

Horren legitimazio-oinarria legezko betebeharrak baten betetzea da (Finantza Sistemaren Erreformari buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legea).

(ii) Kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzazioaren prebentzioa

Kapital zuriketa eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko, betebeharrak hauek ditugu:

- Finantza Titulartasunen Fitxategiari hilerok adieraztea kontu korranteak, aurrezki-kontuak, gordailuak eta bestelako ordainketa-kontuak ireki edo kitatu direla, baita segurtasun-kutxen alokairu-kontratuak eta errentamendu-aldia ere, horien merkataritza-izena edozein dela ere. Beraz, zure identifikazio datuak fitxategi horretan sartuko dira, zeinaren arduraduna Ekonomia eta Enpresei Laguntzeko Estatu Idazkaritza baita.
- Zuri buruzko informazioa biltzeko eta zu identifikatzeko, araudi honek ezarritako arreta-betebeharrak betetze aldera.
- BBVAren bidez kontuan gauzatutako eragiketak aztertu eta, hala badagokio, Sepblac erakundeari jakinarazi.
- Eragiketei buruzko informazioa emateko agintari nazionaliei eta beste herrialde batzuetakoei, Europar Batasunaren barruan nahiz kanpoan, herrialde batzuen legerian eta herrialde horien artean sinatutako akordioetan oinarrituta.

Horretarako legitimazio-oinarrria **legezko betebeharrak** baten burutzea da (10/2010 Legea, apirilaren 28koa, kapital-zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari buruzkoa, eta 5/2015 Legea, enpresa-finantzaketa sustatzeko, eta horren garapen-araudia).

(iii) Arrisku-ereduak sortzea

Espainiako eta Europako araudiak (adibidez, Europako Banku Zentralarena, Europako Banku Agintaritzarena edo Espainiako Bankuarena) finantza-erakundeei eskatzen die arauak eta gidak bete ditzatela kaudimena, finantza-arriskua, kapitalaren kalkulua, eta eragiketa eta bezero bakoitzak arriskua kudeatzeko fase ezberdinetan eskatzen dituen hornidurak kalkulatzeko: onarpena, (arriskua/prezioa/eskuordetzea), jarraipena, kobrantza eta berreskurapenak. Araudi honek datuen tratamendua eskatzen du arrisku-profilen eta arrisku-ereduen xehetasuna zein sakontasun historikoa ezagutzeko.

Horren legitimazio-oinarrria kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen araudian eta kaudimena eta finantza-arriskua kontrolatzeko araudian aurreikusitako **legezko betebeharrak** baten beteazpena da.

Profilak sortzeko aplikatutako analisi-ereduek erabaki automatizatuak hartzea eraman gaitzakete arestian aipatutako araudia betetzeko. Era horretan har litekeen erabakiaren xehetasuna kontsulta dezakezu esteka honetan: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/esperientziak/agregatzaile-finantzarioa/arauko-tratamendu-jarduera.pdf>. Gainera, hartutako erabakia operadore batek zuri azaltzeko eskubidea duzu, baita horri buruz zuk egindako iruzkinak jasotzeko eta erabakiaren aurka egiteko ere.

Araudiak hala eskatzen digunean, ematen dizkiguzun informazioa eta datu pertsonalak tratatuko ditugu produktu jakin bati buruz dituzun ezagutzak eta esperientzia ebaluatzeko eta zure inbertsio-profila zehaztu behar denean. Horretarako, kontuan hartuko ditugu, emandako zerbitzuaren arabera, finantza-tresna zehaztuz dituzun ezagutzak eta esperientzia, zure inbertsio-helburuak (arriskuarekiko tolerantzia-maila eta jasangarritasun-lehentasanak barne) eta zure finantza-egoera, produktua edo zerbitzua zuretzat egokia den zehaztu ahal izateko.

Legezko betebeharrak bat betetzea da legitimazio-oinarrria (Balore Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legea eta 217/565 Erregelamendu Eskuordetua).

Zorroen aholkularitza eta kudeaketa diskrezionalako zerbitzuen kasuan, tratamendu horrek berekin dakar inbertsio-arriskuko profil bat egitea, adierazitako zerbitzuak eman ahal izateko soilik erabiltzen duguna, baita zuk kontratatutako produktuaren egokitasunaren jarraipena egiteko ere, Balore Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko Legeak gure jarduerari ezarritako betebeharren arabera.

Era horretan har litekeen erabakiaren xehetasuna kontsulta dezakezu esteka honetan: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/legal/tratamiento-de-datos/perfil-de-riesgo-de-inversion.pdf>.

Gainera, hartutako erabakia operadore batek zuri azaltzeko eskubidea duzu, baita horri buruz zuk egindako iruzkinak jasotzeko eta erabakiaren aurka egiteko ere.

3. Kreditu informazioko sistemiei informatu eta kontsultatzea

Zure eskaerak eta eragiketak ekonomikoki bideragarriak direla aztertzeko, BBVAk zure izenean dauden datuak kontsultatu behar ditu erakunde hauek kudeatzen dituzten kreditu informazioko sistemetan: Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito SL (ASNEF), Experian Bureau de Crédito SA (EXPERIAN).

Jakinarazten dizugu zure zorren datuak jakinaraz diezazkiekegula kreditu informazioko sistemak kudeatzen dituzten erakundeei, baldin eta:

- Ordaindu ez den zor egiazkoa, mugaeguneratua eta eskagarria bada, eta zor hori edo horren zenbatekoa ez bada erreklamatu bide administratibotik, judizialek edo arbitraje-bidetik.
- Zorra kitatu behar zen egunetik, betebeharraren mugaegunetik edo, aldizkako mugaeguna baldin bazuen, epe zehatzetik 5 urte igaro ez badira.

Kredituari buruzko informazio-sistematarako edozein komunikazio legitimatzeko oinarria, bai eta kontsumo maileguekin lotutako eskaeren kontsulta ere, BBVAk kreditu arduratsua lortzeko irizpideak betetzeko duen interes legitimoa da.

Higiezin kreditu kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legea dela eta, higiezin maileguen eskaerei buruzko kontsultaren zilegitasunaren oinarria legezko betebeharrak bat betetzea da.

4. Iruzurra prebenitzea

Zure datu pertsonalak erabiliko ditugu gure produktu eta zerbitzuen kontratazioan iruzur-egoerei aurrea hartzeko, bai eta hirugarrenen iruzurrezko jarduketaren ondorioz zuri kalteak ekar dakizkiekeen egoerak saihesteko ere.

Helburu horrekin, halaber, zure datu pertsonalak tratatuko ditugu, iruzurren inguruko informazio orokorrari buruzko jakinarazpenak bidaltzeko.

Horren legitimazio-oinarria da BBVAk egoera horiek gerta ez daitezen duen **interes legitimoa**, zuri eta, hala dagokionean, erakundeari berari kalteak ekar ditzaketelako. Datuen tratamenduen aurka egiteko eskubidea gauzatu dezakezu posta elektronikoko bat bidaliz hona: derechosprotecciondatos@bbva.com; halaber, gure edozein bulegotan ere eska dezakezu.

Gainera, helburu hori betetzeko, honako informazio-sistemetan dauden datuen berri eman eta kontsultatu ahalko ditugu:

(i) Confirma fitxategia

Iruzur saiakerak prebenitzeko edo horiek saihesteko, BBVA erakundea Confirma Fitxategiari atxikita dago. Eragiketako eskaera baten esparruan BBVAri ematen dizkiozun datu pertsonalak (adibidez, kontu korrontea edo finantzatzeko kontua irekitzeko eskaera batengatik) Confirma fitxategiari jakinaraziko zaizkio, atxikitako erakundeek fitxategian erregistratutako eskaerak eta eragiketak erkatzeko helburuarekin, eskaera iruzurrezkoa izateko aukera baloratuzko.

Tratamenduaren erantzunkideak Confirma fitxategiaren erregelamenduari atxikitako erakundeak dira, eta tratamenduaren arduraduna Confirma Sistemas de Información, S.L. da, Avda. de la Industria, 18, TRES CANTOS (28760) MADRID helbidea duena. Confirma fitxategiaren erregelamenduari egun atxikita dauden erakundeen zerranda kontsultatu ahal izango duzu www.confirmasistemas.es webgunean. Erregelamenduari atxikitzen zaizkion eta bere jarduera-esparruan kontratazioari lotutako iruzurra jasan dezaketen erakundeek parte hartu ahal izango dute Confirma fitxategian. Confirma fitxategiaren erregelamenduari atxikitako erakundeek kontsultatu ahal izango dituzte Confirma fitxategiari jakinarazitako datuak. Informazio osagarria eta atxikitako erakundeen arteko erantzunkidetasuneko hitzarmenaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa eska dezakezu bbva.es webgunean, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>.

Horren legitimazio-oinarria da Confirma fitxategiari atxikitako erakundeek iruzurra prebenitzeko duten interes legitimoa, nortasunaren usurpazioa eta dokumentuen manipulazioa murrizteko, bezeroak babestuago egon daitezen eta galera ekonomiko txikiagoa izan dezaten; hori gizarte osoaren interesen onerako izango da. Iruzurrezko eragiketak egiteko aukerak murrizteak berekin dakarren delinkuentzia ere murriztea dakar, oro har, baita beste delitu batzuen gaineko ondorioak ere, hala nola kapitalen zuriketa edo terrorismoaren finantzaketa. Horrenbestez, fitxategi hau zure interesen mesederako da, argi eta garbi, partikularki kaltetu diezazkizuketen hirugarren batzuen iruzurrezko praktiken aurrean babestea duelako helburu.

Confirma fitxategia kontsultatzea egokia da lortu nahi den helburua kontuan hartuta, eta proportzionala da atxikitako erakundeek lortutako onurari eta zure pribatutasunaren gaineko eraginari dagokienez. Era berean, datuen tratamendua zure arazoizko itxaropenaren barruan kokatzen da, praktika arrunta baita eta eragiketako eskaera baten esparruan gertatzen baita. Kalteak eta ondorio kaltegarriak saihesteko, zure informazioaren konfidentziasuna eta segurtasuna indartzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu dira. Zure datu pertsonalak gordetzeko gehieneko epea bost urtekoa izango da. Ez da aurreikusten zure datu pertsonalak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera bidaltzea.

Indarrean dagoen datuak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuetara sartzeko eta horiek zuzentzeko, ezabatuzko, aurkaratzeko, horien tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu. Horretarako, tratamenduaren arduradunarengana, Confirma Sistemas de Información, S.L., zuzendu behar zara, goian adierazitako helbidean. Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea erabili ahal izango duzu (www.aepd.es). Confirma Sistemas de Información, S.L. enpresak datuak babesteko ordezkaritza bat

izendatu du, eta dpo@confirmasistemas.es helbide elektronikoaren bitartez jarri ahal izango zara harremanetan Confirma fitxategiarekin lotutako pribatutasuneko eskaerarako. Ados ez bazaude, tratamenduaren aurka zaudela adieraz dezakezu, helbide honetara mezu elektroniko bat bidalita: dpo@confirmasistemas.es.

(ii) Iberpay fitxategia

Jakinarazten dizugu BBVAk banku-eragiketetan iruzurrak prebenitzeko fitxategi komun batean sar ditzakeela zure datu pertsonalak. Horien erantzunkideak fitxategi horri atxikitako erakundeak dira, horien artean BBVA. Fitxategi komun horri atxikitako entitateen zerrenda eguneratua kontsulta dezakezu esteka honetan: <https://www.iberpay.com/es/servicios/sectoriales/prevencion-del-fraude/>. Informazio osagarria eta atxikitako erakundeen arteko erantzunkidetasuneko hitzarmenaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa eska dezakezu bbva.es webgunean, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>.

Fitxategi komun hori Sociedad Española de Sistemas de Pago SAK (Iberpay) kudeatzen du, eta haren helburua da zure kontu korrontean edo aurrezki-kontuan iruzurrak egin ditzaketela susmatzen duten edo baimendu ez diren ordainketa-eragiketak detektatzea, ikertzea, kontrolatzea eta salatzea.

BBVAk datu hauek sartuko ditu fitxategi komun horretan: IBAN zenbakia, eta baimendu gabeko eragiketa edo iruzurrezkoa izan daitekeela susmatzen duen eragiketa detektatu den kontuaren titularra. Datu horiek fitxategi komun horri atxikitako finantza-erakundeek kontsultatu ahal izango dituzte, iruzurra detektatu, prebenitu eta kontrolatzeko helburu bakarrarekin.

Zure datuak tratatzeko oinarri legitimatzailea finantza-erakunde honek zure kontu korrontean edo aurrezki-kontuan jatorria edo helmuga duten banku-eragiketetan iruzurrak antzeman eta prebenitzeko duen interes legitimoa da. Era berean, azaldutako tratamendu hori hirugarrenek egindako iruzurrek kaltetu ditzaketan kontuen titularren beraien interesean egiten da.

Datuak fitxategian gordeko dira, gehienez ere hogeita hamar egunez eragiketa susmagarriak baldin badira, eta urtebetez baimendu gabeko eragiketak badira (iruzurra kaltetuek berretsia izan ondoren). BBVAk automatikoki ezabatuko ditu fitxategi komunean jasotako datuak horiek zuzenak ez direnean edo kaltetutakoaren benetako egoerari egiaz erantzuten ez dietenean.

Azkenik, jakinarazten dizugu gauzatu ditzakezula datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubideak, posta elektroniko bat helbide honetara bidalita: derechosprotecciondatos@bbva.com, edo, nahiago baduzu, posta arrunt bat igorri BBVA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzura, Posta-kutxa: 1598 - 28080 Madrid, zein eskubide erabili nahi duzun zehaztuta.

Zure datu pertsonalak araudiaren arabera tratatu ez ditugula uste baduzu, BBVAko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke bbva.es webgunean sartuz, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>. Edonola ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzu (www.aepd.es).

(iii) EBko esparruko mugaz gaindiko ordainketetan iruzurra prebenitzeko funtzionalitatea.

EBren esparruan kokatutako bankuen artean egindako mugaz gaindiko transferentzia-agindu bat dela eta, jakinarazten dizugu helmugako kontuaren IBAN zenbakiari eta horren titular onuradunaren izenari buruzko datu pertsonalak ere tratatu ahal izango direla anomaliak eta iruzur-ereduak antzemateko Europako ordainketa-sistemen bidez.

Tratamendu honen helburua ezohiko eragiketak edo eragiketa irregularrak identifikatzea da, bai eta horiek identifikatzea ahalbidetzen duten portaerak eta arrisku-ereduak detektatzea ere.

Helburu horrekin aipatutako datuen tratamendua legitimatzen duen oinarria BBVAk zure kontuan jatorria edo helmuga duten banku-eragiketetan iruzurra detektatzeko eta prebenitzeko duen interes legitimoa da. Era berean, deskribatutako tratamendua hirugarrenek egindako iruzurrek uki ditzaketan kontuen titularren intereserako egiten da.

Anomaliak eta iruzur-ereduak detektatzean, hurrengo tratamendua burutuko da:

- Iruzurraren prebentzioari dagokionez, tratamenduari esker, Bankuak denbora errealean azter ditzake kontuei eta ordainketei lotutako arriskuak, alde aurretik identifikatutako eredu historikoak oinarri hartuta kontuen eta transakzioen datuak baliozkotzen dituzten tresnen bidez, eta ordainketa bat bidali aurretik edo kontua berresteko jardueren zati gisa iruzur-arriskuak kudeatzen lagunduko duten anomaliak eta adierazleak antzeman ditzake.
- Iruzurraren antzemateari dagokionez, tratamendua transakzioaren ondorengo azterketak egiteko aukera ematen dio Bankuari, ordainketak egin ondoren arrisku handiko transakzioak ikertzen eta identifikatzen laguntzeko.

- Azkenik, tratamenduari esker, datuen azterketak egin daitezke, prebentzio- eta antzemate-prozesuak hobetzeko aukera emango duten arrisku-eredu eta ordainketa-anomalia berriak identifikatzeko.

Bankuak ez dizkio tratamendu horren ondorioz bildutako datuak transferentzietan bere kontrapartea ez den beste inori lagako, eta datu horiek ezabatu egingo ditu, datu horiek bildu ziren xederako beharrezkoak izateari uzten diotenean, eta, nolahi ere, 14 hilabeteko epean, datuak bildu direnetik zenbatzen hasita.

Azkenik, gogorarazten dizugu datuetara sartzeko eta horiek zuzentzeko, tratamendua mugatzeko, ezabatzeke, aurkaratzeko eta eramateko eskubideak erabil ditzakezula, mezu elektronikoa bat honako helbide honetara bidalita: derechosprotecciondatos@bbva.com, edo, nahiago baduzu, posta arrunt bat igorri BBVA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzura, Posta-kutxa: 1598 - 28080 Madrid, zein eskubide erabili nahi duzun zehaztuta.

Zure datu pertsonalak araudiaren arabera tratatu ez ditugula uste baduzu, BBVAko Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke bbva.es webgunean sartuz, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariarekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>, dpo@bbva.com helbidean. Edonola ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzu (www.aepd.es).

(iv) Emailage eta Telesign

Iruzur-arriskua ebaluatzeko, datu pertsonal jakin batzuk jakinarazi behar dizkiegu, hurrenez hurren, Emailage Corporation ("Emailage") enpresari (helbidea: 16 Great Queen Street, Covent Garden, Londres (Erresuma Batua) eta Telesign Corporation ("Telesign") erakundeari (helbidea: 13274 Fiji Way Suite 600, Marina Del Rey, CA 90292, Estatu Batuak). Enpresa horiek BBVAri zerbitzuak ematen dizkiote, aktiboko eskaera batean ematen dizkiguzun telefono mugikorreko datuak, helbide elektronikoa eta IP helbidea egiaztatu ahal izateko.

Hauek izango dira jakinaraziko diren datu pertsonalak: posta elektronikoa eta IP helbidea, Emailage-ren kasuan, eta harremanetarako telefono-zenbakia, Telesign-en kasuan, erakunde horiek iruzurrezkoak izan daitezkeen datuak identifikatu ahal izan ditzaten.

Zure datu pertsonalak Emailage-ri eta Telesign-i jakinarazteko legitimazio-oinarria hau da: BBVAren interes legitimoak jokabide irregularrak edo iruzurrezkoak antzematea ahalbidetzen duten irregulartasunak edo jokabideak detektatzeko eta interesdunei zein BBVAri kaltea eragin diezaiaketen iruzurrezko egoerarik ez gertatzeko.

Ados ez bazaude, aurka zaudela adierazi dezakezu helbide honetara mezu elektronikoa bat bidalita: derechosprotecciondatos@bbva.com

5. Arrisku-analisia eta merkataritza-helburuak

(i) Oinarrizko profilak sortzea

a) Merkataritza-profil oinarrizkoak sortzea

Merkataritza-profil oinarrizkoak prestatzeko, BBVArekin duzun harremanari buruzko datuak erabiliko ditugu, hala nola identifikazio- eta harremanetarako datuak, datu soziodemografikoak, datu ekonomikoak eta ondare-kaudimenari buruzkoak, transakzio-datuak eta Agregazio eta Ordainketa Hasteko zerbitzuei buruzkoak, BBVArekin kontratatutako edo hark merkaturatutako komunikazioei eta produktu eta zerbitzuei buruzko datuak, eta kanalen eta zerbitzuen erabilerari buruzkoak, BBVAk zure esku jartzen dituen kanalen eta zerbitzuen erabilpeneko datuak, jasotzen dugun nabigazio-informazioa barne, eta jokabide digitalari buruz cookieei edo gailuei esleitutako plataformetatik eta komunikabide zentraletatik lortutakoak, webgunean eta mugikorrean gure cookie-politikarako baimena ematen diguzunean, eta zure gailu mugikorren geolokalizatzearenak, horretarako zeuk baimena ematen duzunean. Era berean, sarbide publikoko iturrietatik, higiezin balorazio-iturrietatik (esaterako, Madiva Soluciones SLk emandakoa), ibilgailuen tasazioei buruz EUROTAXetik eta estatistika-iturrietatik lortutako datuak erabiltzen ditugu.

Tratatuko ditugun datuak **azken urteari dagozkionak** izango dira.

b) Oinarrizko profil bat sortzea arriskurako

Zure oinarrizko arrisku-profila prestatzeko, zer kaudimen duzun ebaluatuko dugu, eta, zure kreditu gaitasunaren arabera, gehieneko finantzaketa- edo zorpeko-muga bat esleituko dizugu zure interesekoak izan daitezkeen kontu korrontetarako, txarteleterako, maileguetarako edo kredituetarako. Ebaluazio hori Bankuaren beraren ekimenez egingo genuke, eskatu ez diguzun arren, eta norberaren iturrietatik edo hirugarrenetatik lortutako informazioa erabiliz, baldin eta informazio hori publikoa edo nahitaezkoa bada, kaudimena ebaluatzeko araudiaren arabera, esaterako kreditu-informaziorako sistemak (Espainiako Bankuaren Arriskuen Informaziorako Zentrala -CIRBE-, Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito SL, Experian Bureau de Crédito SA) eta kreditu-baloraziorako enpresak (Equifax

Ibérica SL, kasu); iruzurra prebenitzeko informazio-sistemetatik, esaterako Confirma; higiezin balorazio-iturrietatik (esaterako, Madiva Soluciones SLk emandakoa) eta ibilgailuen tasazioei buruz EUROTAXetik lortutako datuak; eta estatistika-iturriak.

Horretarako, besteak beste, datu hauek erabiltzen ditugu: identifikaziorako eta harremanetarako datuak, datu ekonomikoak eta ondare-kaudimenari buruzkoak, transakzio datuak, datu soziodemografikoak, kontratatutako produktuei eta zerbitzuei buruzkoak, Agregazio eta Ordainketa Hasteko zerbitzuetan barne direnak (kontratatzean horretarako baimena ematen duzunean), komunikazioetakoak, zure produktu eta zerbitzuak kudeatzeko BBVAk eskura jartzen dizkizun kanaletan erabilitakoak, kontratatutako produktu eta zerbitzuetatik eratorritako informazioa, kanal digitaletan erabilakoa, jasotzen dugun nabigazio-informazioa barne, eta jokabide digitalari buruz cookieei edo gailuei esleitutako plataformetatik eta komunikabide zentraletatik lortutakoak, webgunean eta mugikorrean gure cookie-politikarako baimena ematen diguzunean, eta zure gailu mugikorraren geolokalizazioa, horretarako zuk baimena ematen duzunean.

Bost urteri dagozkien datuak tratatuko ditugu.

Zenbait kasutan, datuak algoritmo matematikoak (tratamendu automatizatua) aplikatuz tratatu ahalko dira, aurrez emandako finantzazioa edo eskaintzen den produktu edo zerbitzua zure egoerari pertsonalari hoberen egokitzen zaiona eta behar den momentukoa izan dadin.

Har daitezkeen erabaki motak kontsulta ditzakezu esteka honetan: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaaes/documents/legal/tratamiento-de-datos/decisiones-automatizadas-i.pdf>, datu garrantzitsuei buruzko informazioa lortzeko. Gainera, hartutako erabakia operadore batek zuri azaltzeko eskubidea duzu, baita horri buruz zuk egindako iruzkinak jasotzeko eta erabakiaren aurka egiteko ere.

c) Karbono-lorrazaren kalkulua

Zure CO2 isuriak aztertuko ditugu argindarraren eta erregaiaren sektoreetan zure jarduerarekin sortzen duzun karbono-aztarna kalkulatzeko. Horretarako, BBVAekin duzun harremanetik datozen transakzio-datuak erabiliko ditugu, zehazki, txartelekin egindako transakzioenak, bai eta BBVAko kontuetan helbideratutako banku-ordainagiriak ere, zeu, bezero zaren aldetik, horien titular zarenean, eta, betiere, transakzio horiek alde aurretik argi, gas eta garraio arlotan kategorizatu badira. Era berean, mugimenduaren igorlearen datua erabiltzen dugu karbono-aztarna hori sortzeko aplikatu behar den CO2 isurketa-faktorea ezagutzeko.

Karbono-aztarnaren kalkulua **egunero** sortzen diren datuekin egiten da, edo, gehienez ere, **aurreko hiru egunei** dagozkienekin.

a) eta b) ataletan azaltzen diren profil horien analisiarekin, zure finantzak kudeatzeko iradokizunak egin ahal izango dizkizugu, eta zure profileraren gehien egokitzen diren produktu eta zerbitzuetarako gomendioak emango ditugu; eta c) atalean deskribatutako profilararekin, berriz, sortzen duzun CO2 isurien maila erakuts diezazukegu, zure karbono-aztarna zein den badakizunean murriztu ahal izan dezazun.

Aurreko ataletan adierazitako tratamenduetarako legitimazio-oinarria BBVAren **interes legitimoa** da (i) bezeroak hobeto ezagutzeko eta produktuen eta zerbitzuen eskaintza zabalagoa eta hobea sortzeko; eta, (ii) eskaintzak bezeroen beharretara egokitzeko. Tratamendu hori zure komenentziakoa da gure ustetan, eta hori aztertzean zure eskubideak eta askatasunak kontuan izan ditugu, bereziki datu pertsonalak babesteko duzun oinarritzko eskubidearekiko begirunea; eta, (iii) herritarrekin lankidetzan aritzea haien eraginkortasun ekologikoa hobetzeko, bezeroak sensibilizatuz eguneroko jardueraren ondoriozko inpaktu ekologikoari buruz.

Datuen tratamenduen aurka egiteko eskubidea gauzatu dezakezu posta elektronikoko bat bidaliz hona: derechosprotecciondatos@bbva.com, gure edozein bulegotan eskatu edo aplikazioaren bidez, "Karbono-aztarna" atalean. Era berean, tratamenduaren aurka egotea aldatu ahal izango duzu lehen adierazitako helbide elektronikoren bidez.

(ii) Merkataritza- eta arrisku-profil aurreratuak sortzea

a) Merkataritza-profil aurreratu sortzea Baimena ematen badiguzu, zure datu pertsonalak tratatuko ditugu zure merkataritza-profila aurreko (i) atalean aurreikusitako baino modu zehatzagoan sortzeko. **Tratatzen ditugun datu pertsonalak gehienez azken (5 urtetakoak) izan daitezke; ondorioz, tratamendu honek bezero gisa dituzun lehentasunei buruzko ezagutza xehatua du, datu pertsonal kopuru handia tratatzen duelako.**

Merkataritza-profil aurreratu sortzeko, analisi-ereduak aplikatzen dizkiegu zure lehentasunei, ondare-gaitasunari edo kaudimen ekonomikoari buruzko ezagutza zehatzagoa lortzeko. Horretarako, oinarritzko merkataritza-profilean aztertutako datuez gain, gisa honetakoak ere erabiltzen ditugu: transakzio-datuak (kontuen eta txartelen mugimenduak edo bestelako eragiketen xehetasunak dituzten inferentzia testuak; esaterako, jatorria, xedea, kontzeptua eta horiekin lotutako hirugarrena) eta Agregazio eta Ordainketa Hasteko zerbitzuen datuak, kontratatzean horretarako baimena ematen duzunean. Era berean, iturri publikoetako datuak eta ondasun eta zerbitzuen entreegi buruzko datuak (horiek ordaintzeko BBVAk finantzazioa eman badizu) erabiltzen dira. Azken datu horiek ondasun edo zerbitzuen hornitzaileengandik lortzen dira.

b) Arrisku-profil aurreratua sortzea

Baimena ematen badiguzu, zure datu pertsonalak tratatuko ditugu zure arrisku--profila aurreko atalean aurreikusitako baino moduzehatzagoan sortzeko. **Tratatzen ditugun datu pertsonalak kontratatutako produktuen indarraldiarekin bat etor daitezke; ondorioz, tratamendu honek bezero gisa dituzun lehentasunei buruzko ezagutza oso xehatua du, datu pertsonal kopuru handiagoa tratatzen duelako.**

Arrisku-profil aurreratua sortzeko, zure aurrezteko eta zorpetzeko gaitasunak eta finantza-eboluzioa aztertuko ditugu. Horretarako, oinarritzko arrisku-profilean aztertutako datuez gain, gisa honetakoak erabiltzen ditugu: transakzio-datuak (kontuen eta txartelen mugimenduak edo bestelako eragiketen xehetasunak dituzten ordainagiriaren testuak; esaterako, jatorria, xedea, kontzeptua eta horiekin lotutako hirugarrena) eta Agregazio eta Ordainketak Hastea zerbitzuen datuak, kontratatzean horretarako baimena ematen duzunean, komunikaziokoak, Bankuaren kanalak erabiltzeari buruzkoak, asebetetze-inkesten bidez emandakoak, cookie-politika onartzean webgunean eta mugikorrean egindako nabigazioaren eta kanal digitalen erabilerari buruzkoak, kokapenari buruzkoak (gailu mugikorraren geolokalizazioa), hori baimentzen denean, eta beste iturri batzuetatik lortutako datuak, oinarritzko arrisku-profilean adierazitakoez gain, besteak beste:

- Sarbide publikoko iturriak: aldizkari eta buletin ofizialak, erregistro publikoak, elkargo profesionaletako pertsonen zerrendak eta merkataritza gainberak.
- Interes orokorreko horniduren (energia, komunikabideak...) zerbitzu-konpainietatik lortutako profilen informazioa.

Eredu horiek aplikatuta, iradokizunak egin diezazkizukegu finantzak ondo kudeatzeko, zure profilerako ondoen egokitzen diren gomendioak edo produktu nahiz zerbitzuen eskaintzak jasotzeko edota dagoeneko kontratatuta dituzun edo etorkizunean eska ditzakezun produktu eta zerbitzuetan baldintza hobek aplikatzeko. Era berean, eredu horiek aplikatuta, zure beharrak aurreikusi eta profilari egokitutako produktu edota zerbitzuak eskain ditzakegu, eskaera egin baino lehen.

Gainera, zure kreditu- eta kaudimen-gaitasunaren arabera, Bankuak zuretzat interesgarria izango den gehieneko finantzazio-muga edo beste produktu bat eskain diezazuke. Horren kontratazioa eskaintza eta kasu bakoitzean jakinarazten dizkizugun baldintza zehatzak onartzearen mende egongo da; esaterako, kreditu-informaziorako sistemetan dituzun finantza-posizioak kontsultatuta.

Zenbait kasutan, profilak sortzeko aplikatutako analisi-ereduek erabaki automatizatuak hartzea ekar dezake, eskaintzen den produktu edo zerbitzua zure egoera pertsonalerako egokiena eta une egokienean izan dadin. Har daitezkeen erabaki motak kontsulta ditzakezu esteka honetan: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/legal/datuen-tratamendua/erabaki-automatizatuak-ii.pdf>, datu garrantzitsuei buruzko informazioa lortzeko. Gainera, hartutako erabakia operadore batek zuri azaltzeko eskubidea duzu, baita horri buruz zuek egindako iruzkinak jasotzeko eta erabakiaren aurka egiteko ere.

Horren [legitimazio-oinarria](#) zure **baimena** da.

Profil horiek ez dira erabiliko beste helburu batzuetarako, eta uneoro zure profil pertsonalari ondoen egokitzen diren produktu eta zerbitzuak jasotzeko pentsatuta daude. Profil horiek egiteko ez da inolaz ere datuen kategoria berezirik erabiliko. Zure informaziorako, zuek erabakiko duzue baimena ematen diguzun edo ez (ii) atalean azaltzen ditugun tratamenduetarako, dagokion laukia sakatuta **Datuak babesteko oinarritzko informazioa** atalean: "BBVAk nire datuak eta lehentasunak zehatzago kontsultatzea eta tratatzea nahi dut, nire finantzak hobeto kudeatzeko irtenbideak eskaintzeko".

(iii) Produktuak eta zerbitzuak eskaintzea

a) BBVAren edo hark merkaturatutako produktu eta zerbitzuen eskaintza

Aurreko (i) atalean azaldutako oinarritzko profila ardatz hartuta, eta (ii) atalean azaldutako profil aurreratuari baimena ematen badiotuz, BBVArenak diren edo BBVAk merkaturatzen dituen finantza eta aseguru arloko produktu eta zerbitzuei buruzko merkataritza-jakinarazpenak igor diezazkizukegu.

BBVAren produktu eta zerbitzuei buruzko komunikazio komertzialak bidal diezazkizukegu, Bankuarekin zuzenean kontratatuta edo hark merkaturatuta dituen antzekoak direnean, edo baldintza edota prezio egokiagoak ezar diezazkizukegu kontratatuta dituzun edo etorkizunean kontrata ditzakezun produktu eta zerbitzuetan.

Antzeko produktuei buruzko komunikazio komertzialak bidal diezazkizukegu, Bankuak merkaturatzen dituen produktu edo zerbitzu finantzarioei buruzkoak, bereak edo BBVAk akordioak eginda dituen erakundeei buruzkoak direnean, hala nola inbertsio-funtsei eta pentsio-planei buruzkoak, BBVA Mediación Operador de Banca Seguros Vinculado SAK BBVAren kanalen bidez banatutako aseguru batzuk barne. Produktu eta zerbitzu horiek hemen kontsulta ditzakezu: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/legal/tratamiento-de-datos/listado-productos-y-servicios.pdf>.

Era berean, BBVAren bezero izan bazara, aurretik kontratatutako antzeko merkataritza-informazio orokorra jasotzen jarrai dezakezu BBVAren produktu eta zerbitzuei buruz.

Tratamendu horietarako legitimazio-oinarria da BBVAk interes legitimoa duela (i) bere produktuak eta zerbitzuak eta

merkaturatzen dituenak sustatzeko, eta (ii) kreditu arduratsu bat eskaintzeko, ez-ordainketaren arriskua minimizatuz, eta, aldi berean, zure behar ekonomikoei aurrea hartzeko, mailegu bat azkarrago, errazago eta malguago emateko. Tratamendu hori zure komenentziakoa da gure ustetan, eta hori aztertzean zure eskubideak eta askatasunak kontuan izan ditugu, bereziki datu pertsonalak babesteko duzun oinarrizko eskubidearekiko begirunea. Komunikazio komertzialak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzen badizkizugu (adibidez, posta elektronikoa, SMS edo berehalako mezularitzako aplikazioak), legitimazio-oinarria informazioaren gizartearen zerbitzuen araudian baimenarentzat ezarritako salbuespena da.

Datuen tratamenduen aurka egiteko eskubidea gauzatu dezakezu posta elektronikoa bidez bidaliz hona: derechosprotecciondatos@bbva.com; halaber, gure edozein bulegotan ere eska dezakezu. Era berean, tratamenduaren aurka egotea aldatu ahal izango duzu lehen adierazitako helbide elektronikoen bidez.

b) BBVA Taldeko Sozietateen (partaidetzapekoak zein kolaboratzaileak) produktu eta zerbitzuak eskaintzea

Aurreko (i) eta (ii) ataletan deskribatutako profiletan oinarrituta, bigarreneko baimena eman baduzu, zurekin harremanetan jarraitzeko eta BBVA Taldeko sozietateen, partaidetzapeko sozietateen edota BBVArekin lankidetzahitzarmenak dituzten sozietateen produktu, zerbitzu eta eskaintzei buruzko informazioa bidali, jarduera-sektore hauen parte badira: finantzak, parabankarioa, aseguruak, bidaiak, automobilgintza, telekomunikazioak, hornidurak, segurtasuna, informatika, hezkuntza, higiezinak, kontsumoko, aisialdiko eta astialdiko produktuak, zerbitzu profesionalak eta gizarte zerbitzuak.

Legitimazio-oinarria BBVA Taldearen eta hirugarrenen produktu eta zerbitzuei buruzko merkataritza-komunikazioak bidali ahal izateko zure emandako **baimena** da. Jakin dezazun, zeuk erabakiko duzu baimena ematen diguzun edo ez atal honetan azaltzen ditugun tratamenduetarako, dagokion laukia sakatuta **Datuak babesteko oinarrizko informazioa** atalean: "BBVA nirekin harremanetan jartzea nahi dut BBVA Taldeko enpresen, partaidetzapekoak edo kolaboratzaileak, produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko".

Hemen kontsulta ditzakezu: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaaes/documents/gdpr/datos-personales/sociedades-productos-terceros.pdf>

6. Datuen analisia

BBVAn, gurekin kontratatuta dituzun produktuen kontratazioaren eta jarraipenaren ondorioz sortzen den informazioa aztertzen dugu, baita Bankuarekin duzun interakzioa ere, honako helburu hauekin:

1. Gure barneko prozesuak hobetzea.
2. Produktu eta zerbitzu berriak hobetu eta garatzea.
3. BBVAren edo hirugarren batzuen interesekoak izan daitezkeen estatistikak, inkestak, kalkulu aktuarialak, batezbestekoak eta/edo merkaturako azterketak egitea.
4. Analisi makro eta mikroekonomikoak egitea, adierazle ekonomikoak sortzea eta informazio ekonomiko erantsia lortzea norberaren eta hirugarrenen onurarako.
5. Iruzurri aurka egiteko eta diru-zuriketa prebenitzeko tresnak hobetzea.
6. Ordainketa-ahalmenaren kalkulua, aurrez onartzeko.
7. Merkataritza-helburuak, kaudimen-analisiak, aholkularitza/advice, scoring-a edo joera-ereduak, bezeroen segmentazioa, zenbatespenak, gomendatzaileak, pricing ereduak.
8. Negozioaren jarraipena, eta erabakiak hartzeko txosten euskarridunak sortzea.

Aurreko helburuak betetzeko, BBVAn eredu analitikoak eta estatistikoak bezalako tresnak sortu eta erabiliko ditugu batzuetan, eta tresna horiek **Zer datu tratatzen ditugu?** atalean deskribatutako informazioarekin sortu eta elikatzen dira.

Ahal den guztietan, BBVAk identifikaziorako eta harremanetarako datuak (aurreko atalean datuen kategoriari buruz identifikatutakoak) kode batekin ordezkatuko ditu, beti modu independente eta seguruan izanez kode bakoitzaren eta dagokion bezeroaren arteko korrespondentzia-zerrenda. Datu pseudonimizatu gisa ezagutzen dira eta datuen titularraren identitatea zaintzen dute.

Era berean, ahal den guztietan, datu pertsonalak anonimotasun-, tokenizazio- eta agregazio-prozesuen mende jarriko dira, informazioa edozein pertsona zehaztetik bereiziz. Neurri horiek guztiak gure bezeroen identitatea babestera eta, segurtasun-arrakalarik izanez gero, bermeak ematera bideratuta daude, identifikazioa eragotzi dadin.

Horren legitimazio-oinarria da BBVAk duen **interes legitimoa**: (i) eskaintzen dizkizugun zerbitzuen eta gure operatiboaren kalitatea eta funtzionaltasuna etengabe hobetzeko, bai eta produktuen eta zerbitzuen eskaintza zabalagoa nola hobetu zure esku jartzeko ere; (ii) anonimizatutako informazio-bolumen handiak ustiatzeko, bezeroen pribatasuna errespetatuz,

informazio ekonomiko erantsia eduki ahal izateko, informazio hori barruan zein kanpoan ustiatzeko.

Tratamendu horiek zure komenentziakoak direla uste dugu, eta hori aztertzean zure eskubideak eta askatasunak haztatu ditugu, datu pertsonalak babestuen izateko duzun oinarritzko eskubidearekiko errespetua, bereziki.

Ados ez bazaude, tratamenduaren aurka zaudela adieraz dezakezu, helbide honetara mezu elektronikoko bat bidalita: derechosprotecciondatos@bbva.com; halaber, gure edozein bulegotan ere eska dezakezu.

7. Zure datuak BBVA Taldeko sozietateei, partaidetzapekoei edo BBVArekin lankidetzara harremanak hitzartuta dituztenei jakinaraztea, euren produktu eta zerbitzuak eskaini diezazkizuten

Zure baimena ematen badiguzu, BBVAk zure datuak jakinaraziko dizkie (identifikazio-datuak, harremanetarakoak, soziodemografikoak, ekonomikoak, eragiketakoak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuetakoak) BBVA Taldeko sozietateei, partaidetzapekoei edota BBVArekin lankidetzara-hitzarmenak dituzten sozietateei, jarduera-sektore hauen parte badira: finantzak, parbankarioa, aseguruak, bidaiak, automobilgintza, telekomunikazioak, hornidurak, segurtasuna, informatika, hezkuntza, higiezinak, kontsumoko, aisialdiko produktuak, zerbitzu profesionalak eta gizarte zerbitzuak; hemen kontsulta ditzakezu: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/gdpr/datu-pertsonalak/taldearen-sozietateak.pdf>, honako helburu hauetarako:

- a) Produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko, are bitarteko elektronikoen bidez, ezaugarri eta prezio pertsonalizatuekin, zure beharren arabera eta eskatzen duzunean.
- b) Profil pertsonalak sortu, kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuetan zuri egokitutako prezioak eskaintzeko.
- c) Estatistikak prestatzeko eta aipatu datuei buruzko analisiak egiteko asmo aktuariarekin edo sustapen- eta merkataritza-helburuekin.

Horren legitimazio-oinarria zuk emandako baimena da zure datu pertsonalak BBVA Taldeko sozietateei, partaidetzapeko sozietateei eta/edo BBVAk lankidetzara-hitzarmenak dituen beste sozietate batzuei jakinarazi ahal izateko, haien produktu eta zerbitzuei buruzko merkataritza-komunikazioak bidali ahal izan diezazkizuten. Jakin dezazun, zeuk erabakiko duzu baimena ematen diguzun ala ez atal honetan azaltzen ditugun tratamenduetarako, dagokion laukia sakatuta **Datuak babesteko oinarritzko informazioa** atalean: "Nire datuak BBVA Taldeko enpresei, partaidetzapeko enpresei edo kolaboratzaileei soilik jakinaraztea nahi dut, eskaintzen dizkizuten produktuak eta zerbitzuak pertsonalizatzeko".

B) BESTE ESKU-HARTZE MOTA BATZUK

Ber,matzailea bazara

1. Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzea, batik bat, honetarako:

- BBVAren alde eratu duzun bermea kudeatzeko.
- Zurekin dugun harremana kudeatzeko.
- BBVArekin duzun harremana kudeatzeari begira jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzeko.
- Arrisku egoerak, ordaindu gabekoak, gorabeherak eta erreklamazioak kontrolatu, aztertu eta kudeatzeko.
- BBVAk zure eskura jartzen dituen kanaletarako sarbidea kudeatzeko, kontratatuta dituzun produktuak eta zerbitzuak eskuratu eta kudeatu ahal izan ditzazun.

Legitimazio-oinarria **kontratua betearaztea** edo **kontratu aurreko neurriak hartzea da**.

2. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea, bereziki, hauek:

- CIRBERi informatu eta kontsultatzea.
- Kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa (parte-hartze mota honi ez zaio aplikagarria izango Titular Finantzarioen Fitxategia betetzeko betebeharrari buruzko aurreikuspena).
- Arrisku-ereduak sortzea.

Legitimazio-oinarria **legezko betebeharrak** baten betetzea da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 2. epigrafean. "BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea".

3. Kreditu-informazioko sistemiei informatzea eta kontsultatzea

Kredituari buruzko informazio-sistematarako edozein komunikazio legitimatzeko oinarria, bai eta kontsumo maileguekin lotutako eskaeren kontsulta ere, BBVAk kreditu arduratsua lortzeko irizpideak betetzeko duen **interes legitimoa** da. Higiezin kreditu kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legea dela eta, higiezin maileguen eskaerei buruzko kontsultaren zilegitasunaren oinarria **legezko betebeharrak** bat betetzea da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 3. epigrafean. "Kreditu-informazioko sistemiei informatzea eta kontsultatzea".

4. Iruzurra prebenitzea, informatzea eta Confirma fitxategia kontsultatzea

Legitimazio-oinarria **interes legitimoa** da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 4. epigrafean. "Iruzurra prebenitzea" oso-osorik aplikatuko da, iruzurren inguruko informazio orokorrari buruzko jakinarazpenak bidaltzea izan ezik.

Ordezkarria edo baimendua bazara

1. Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzea, batik bat, honetarako:

- BBVAko bezero batekin ordezkari edo baimendu gisa duzun harreman juridikoagatik esku hartzen duzun kontratuaren kudeaketa, bezero horrek produktuak, zerbitzuak edo eragiketak kontratatzeke emandako ahalmenen, ahalen edo jarraibideen esparruan.
- BBVArekin edo ordezkatzeko duzun bezeroarekin duzun harremana kudeatzeko jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzea.
- BBVAk zure eskura jartzen dituen kanaletarako sarbidea kudeatzea, BBVAren bezero batekin kontratatuta dituzun produktuak eta zerbitzuak eskuratu eta kudeatu ahal izan ditzazun.

Legitimazio-oinarria **kontratu betearaztea** edo **kontratu aurreko neurriak hartzea** da.

Pertsona juridiko baten ordezkaria bazara, legitimazio-oinarria ordezkatzeko duzun erakundearekin merkataritza- eta kontratu-harremanak izateko BBVAk duen interes legitimoa da, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea, bereziki, hauek:

- Kapital zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzea.

Legitimazio-oinarria **legezko betebeharrak** baten betetzea da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 2. epigrafean. "BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea".

3. Iruzurra prebenitzea, informatzea eta Confirma fitxategia kontsultatzea.

Legitimazio-oinarria **interes legitimoa** da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 4. epigrafean. "Iruzurra prebenitzea" oso-osorik aplikatuko da, iruzurren inguruko informazio orokorrari buruzko jakinarazpenak bidaltzea izan ezik.

Onuraduna bazara

1. Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzea, batik bat, honetarako:

- BBVAren bezero batekin duzun harreman juridikoagatik esku hartzen duzun kontratua kudeatzeko.
- BBVArekin duzun harremana kudeatzeari begira jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzeko.
- BBVAk zure eskura jartzen dituen kanaletarako sarbidea kudeatzeko, BBVArekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuak eskuratu eta kudeatu ahal izan ditzazun.

Legitimazio-oinarria **kontratua betearaztea** edo **kontratu aurreko neurriak hartzea da**.

2. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea, bereziki, hauek:

- Kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa (parte-hartze mota honi ez zaio aplikagarria izango Titular Finantzarioen Fitxategia betetzeko betebeharrari buruzko aurreikuspena).

Legitimazio-oinarria **legezko betebeharrak** baten betetzea da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 2. epigrafean. "BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea".

Adostasuna ematen duen ezkontidea edo zordun ez den hipotekatzailea bazara:

1. Parte hartzen duzun produktu eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzea, batik bat, honetarako:

- Esku hartzen duzun kontratuetan xedatutakoa mantentzea, betetzea, garatzea, kontrolatzea eta betearaztea kudeatzeko.
- BBVArekin duzun harremana kudeatzeari begira jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzeko.

Legitimazio-oinarria **kontratua betearaztea** edo **kontratu aurreko neurriak hartzea da**.

2. BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea, bereziki, hauek:

- Kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa (parte-hartze mota honi ez zaio aplikagarria izango Titular Finantzarioen Fitxategia betetzeko betebeharrari buruzko aurreikuspena).

Legitimazio-oinarria **legezko betebeharrak** baten betetzea da.

Informazio gehiagorako, kontsultatu, mesedez, tratamendu honen edukia "A) Bezeroa bazara" ataleko 2. epigrafean. "BBVAri aplikagarriak zaizkion legezko betebeharrak eta araudia betetzea".

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Kontratuzko harremana indarrean dagoen bitartean edo tratamendu bakoitzaren helburu zehatzerako beharrezkoak diren bitartean gordeko ditugu zure datu pertsonalak. Ondoren, blokeatuta izango ditugu honako xede hauetarako beharrezkoak direnak:

- i) legezko betebeharrak betetzeko; zehazki:
 - a. 10 urtez, kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudia aplikatuz.
 - b. Finantza-erakundeak (Europako Banku Zentrala, Europako Banku Agintaritzak eta Espainiako Bankua) lotuta diren kapitalkalkulatuak eta hornidurak kalkulatzeari buruzko araudiak ezartzen duten gehieneko denbora-tartean.
- (ii) eta erreklamazio edo legezko ekintzen ondorioetarako baino ez diren legezko preskripzio-epeetan.

Epe horiek igarotakoan, suntsitu egingo ditugu zure datu pertsonalak.

Nori emango diogu zure datuen berri?

(i) Hirugarrenei komunikazioak interes legitimoan, legean edo kontratu-harremanaren kudeaketa Datu Pertsonalak Babesteko Politikaren beste atal batzuetan aurreikusitako helburuetarako

Aldez aurretik jakinarazi gisa, BBVAk datu hauek jakinaraziko dizkie agian erakunde hauei:

- Espainiako Bankuaren Arrisku Informazio Zentralari (CIRBE) legezko betebeharrak betetzean oinarritutako arrisku eragiketen berri ematen diegu (bezeroa edo bermatzailea bazara);
- Ekonomia eta Enpresa Laguntzarako Estatu Idazkariaren Finantza Titulartasunen Fitxategiari identifikazio-datuak eta zenbait produktu jakinarazten dizkiogu, kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzeko (bezeroa, ordezkaria edo baimendua bazara);
- estatuko eta Europar Batasuneko gainbegiratze-agintaritzei, besteak beste Espainiako Bankuari, Europako Banku Zentralari, Europako Banku Agintaritzari (EBA) eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, legezko betebeharrak bat betetzeko horretara beharturik gaudenean.
- estatuko eta beste herrialde batzuetako agintariei, Europar Batasunaren barruan zein kanpoan, kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudia bete; eta iruzurraren prebentzioa;
- BBVA Taldeko sozietatei, finantza-krimenaren prebentzioari buruzko barne-araudia bete dezaten, kapital-zuriketaren prebentzioari dagokionez legezko betebeharrak bete ditzaten, eta agintaritzea ikuskatzaileei erregulazio-txostena egin diezaieten.
- kreditu-informaziorako sistemak kudeatzen dituztenei jakinarazten dizkiegu, hain zuzen, araudia betetzeari jarraituz horretarako betekizunak betetzen dituzten zorpekoak (bezeroa edo bermatzailea bazara);
- iruzurraren prebentziorako Cortina eta Iberpay fitxategiei (bezeroa edo bermatzailea bazara, Confirma fitxategiari dagokionez);
- informazio jakin batean oinarrituta iruzur-arriskua identifikatzera zuzendutako tresna informatikoen (Emailage o Telesign, esaterako) hirugarren titularrei. Telesign-en kasuan, komunikazioak datuen nazioarteko transferentzia bat ekarriko du Estatu Batuetara, eta (iv) atalean ("Zerbitzu-emaileak") adierazitako antzeko segurtasun-bermeak hartu dira horretarako;
- Iberpay zerbitzuaren bidez kontuaren titulartasunaren egiaztapena eskatzen duenari, zeinarekin zure aldetik helbideratze bidez edo zure kontuan kargatuz ordaintzaren bat egitea dakarren kontratua sinatuta baduzu edo kontratua sinatu behar baduzu, entitate eskatzailearekin nahiz BBVArekin duzun kontratu-harremanean oinarrituta.
- epaileei, auzitegiei, Fiskaltzari edota administrazio publiko eskudunei beharrezko informazioa helarazten diegu balizko erreklamazioen aurrean, legezko betebeharrak batengatik horretara behartuta gaudenean.
- BBVAk ondasun edo zerbitzu bat erosteari lotutako finantzaketa bat ematen dizunean, BBVAk ondasun edo zerbitzu horren hornitzaileari jakinaraziko dio dagokion finantzaketa-eragiketa indarrean jarri izana (eragiketa-zenbakia, bezeroa eta zenbatekoa), hornitzaileak egin dezan Bankuak abonatzeko eragiketen gaineko kontrola eta jarraipena, bere barne-fakturaziorako.
- BBVA Seguros, S.A. de Seguros y Reaseguros sozietateari zure datu pertsonalen eguneratzearen berri ematen diegu, sozietate horren bezeroa ere bazara.

(ii) Komunikazioak hirugarrenei baimenean oinarrituta, Datu Pertsonalak Babesteko Politikaren 7. helburuan jasota

Aldez aurretik onartzen baduzu, aukera izango dugu zure datu hauek jakinarazteko: komunikaziokoak, harremanetarakoak, soziodemografikoak, ekonomikoak eta transakzioei buruzkoak edo BBVA Taldeko sozietateekin kontratatuta daukazun produktu eta zerbitzuei buruzkoak. Sozietate horien barruan daude partaidetzapekoak nahiz BBVArekin lankidetzahitzarmenak dituzten sozietateak, helbide honetan agertzen direla: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/gdpr/datos-personales/sociedades-grupo.pdf> BBVAk aukera izango du hirugarrenei, erosle potentzialeari edo interesduneari zure datu pertsonalak jakinarazteko, hauetakoren bat egiteko beharrezkoa bada: (i) aktibo, zor edo pasiboen salmenta-eragiketak, baita mailegu-zorroren, kredituen edo bestelako finantzazio-motaren salmenta (hipoteka-bermearekin edo gabe, edo beste izaera batekoak) eta (ii) egitura aldaketako merkatu-eragiketak (bateratzeak, banaketak eta zatitzeak barne), aktibo edo pasiboen ekarpenak edota jarduera motaren salmentak edo ekarpenak, ekoizpen- edo negozio-unitateak edo sozietate edo bestelako erakundeen salmenta edo ekarpenak (akzioen salmenta, partaidetza sozialak etab. barne), baldin eta komunikazio hori beharrezkoa bada eragiketa behar bezala egiteko.

Kasu horietan, akordioak sinatuko ditugu hirugarren horiekin edo eskuratzailer edo interesdun potentzial horiekin, zeinetan behartuko baitira (i) zure datuak konfidentzialtasunez eta soil-soilik lehen adierazitako helbururako tratatzen, eta (ii) zure datuak berehala ezabatzen, eragiketa hori formalizatzen ez bada.

Zure datuak jakinarazteko legitimazio-oinarria BBVAren eta hirugarren horien interes legitimoa da, bai eta eragiketaren xede onean eskuratzailer edo interesdun izan daitezkeenak ere. Komunikazioaren helburua da BBVAk horretarako behar duen informazioa eskuratu eta berrikusi ahal izatea.

(iv) Zerbitzu-emaileak

Zuri bezero gisa zerbitzu egokia eman ahal izateko eta bezero zarenez zurekin dugun harremana kudeatzeko, zure datuak BBVAren kontura tratatzen dituzten enpresen zerrenda aurkituko duzu, kategorien arabera banatuta, helbide honetan: <https://www.bbva.es/content/dam/public-web/bbvaes/documents/legal/tratamiento-de-datos/proveedores.pdf>. Zurekin kontratatu ditugun zerbitzuen prestazioaren barruan dago zerrenda hori.

Horrez gain, jakinarazten dizugu ezen, aurreko paragrafoan adierazitako xede berarekin, BBVAri zerbitzua ematen dioten eta Europar Batasunetik kanpokoak diren zenbait sozietatek ere atzi ditzaketela zure datu pertsonalak (datuen nazioarteko transferentziak). Transferentzia horiek honela egiten dira: (i) Europar Batasunaren pareko babes-maila (Europako Batzordearen egokitzapen-erabakiak) duten herrialdeetara; (ii) kontratu-klausula moten bidez, eta (iii) legean aurreikusitako berme egokietan oinarrituta.

Nolanahi ere, BBVAk kontratuak sinatzen ditu zerbitzu-emaile horiekin, BBVAren jarraibideen arabera eta datuak babesteko aplikagarria den araudia erabat betez horien tratamendua bermatzeko.

Informazio gehiagorako, BBVAko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke [bbva.es webgunean](https://www.bbva.es/webgunean) sartuz, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>.

Zer eskubide dituzu datuak ematen dizkiguzunean?

ESKUBIDEA	EDUKIA
Sarbidea	BBVAren fitxategietan sartuta dauden zure datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzu.
Zuzentzea	Zure datu pertsonalak ez badira zuzenak, aldatu ahal dituzu.
Ezabatzea	Zure datu pertsonalak ezabatzea eskatu ahal izango duzu.
Aurka egitea	Hau eskatu ahalko duzu: - Zure datu pertsonalak ez daitezela tratatu edota - Erabaki automatizatuen xede ez izan.
Tratamenduaren muga	Zure datuen tratamendua muga dadila eskatu ahalko duzu, honako kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> Zure datuen zehaztasuna aurkaratu bada, aurkaratzea egiaztatzen den bitartean. Tratamendua zilegi ez bada, baina zure datuak ezabatzeari aurka egin badiozu. BBVAk zure datuak tratatu behar ez baditu, baina zuk erreklamazioak egiteko edo defendatzeko behar badituzu. Zure datuaren tratamenduari aurka egin badiozu, baina interes publikoko eginkizun bat edo interes legitimo bat betetzeko beharrezkoak badira, tratamendurako arrazoi legitimoak zureari nagusitzen zaizkion egiaztatzen den bitartean.
Eramangarritasuna	Eman dizkiguzun datuak eta BBVArekin duzun kontratu harremanaren ondorioz lortutakoak formatu elektronikoan jaso ahal izango dituzu, baita beste erakunde bati helarazi ere.
Tratamendu automatizatuetan soilik oinarritutako erabakien xede ez izateko	BBVAk tratamendu automatizatuak egiten baditu inoren esku-hartzerik gabe, eskubidea duzu operadore batek esku har dezan, hartutako erabaki hori zuri azaltzeko, horri buruzko zure iruzkinak jasotzeko eta Bankuaren erabakia aurkaratzeko.



ARRETA KANALAK

derechosprotecciondatos@bbva.com	Servicio Atención al Cliente Grupo BBVA, POSTA-KUTXA: 1598 - 28080 Madrid	BBVA bulegoak
--	--	---------------

Zure datu pertsonalak araudiaren arabera tratatu ez ditugula uste baduzu, BBVAko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke bbva.es webgunean sartuz, Datu pertsonalak/Kontaktua Datuak Babesteko Ordezkariekin atalaren barruan, edo honako esteka honen bidez: <https://www.bbva.es/general/tratamiento-datos.html#contacto-dpo>.

Eskubide horiek doan erabiliko dira.

Era berean, edozein unetan ken dezakezu emandako baimena, horrek tratamenduaren zilegitasunari eragin gabe, eta zure aukerak eta emandako baimenak konfiguratu ditzakezu zeure online bankutik, BBVAren app-etik, bai eta zure kudeatzailearen bidez ere, zure eskaera derechosprotecciondatos@bbva.com helbide elektronikora edo posta arrunteko helbide honetara bidalita: Servicio de Atención al Cliente Grupo BBVA, APDO. 1598 - 28080 Madrid, eta baita gure edozein bulegotara joanez ere.